

ALTERNATIBEN HERRIA

BILBO **24** | **BIZITZA BURUJABEA**
URRIAK **ESKUBIDE OSOZ** ★ ★

<http://alternatibenherria.eus> @kontaktua@alternatibenherria.eus @alterherria Alternatiben-Herria

ALTERNATIBEN HERRIAN, SISTEMA ALDATZERA GOAZ

EGIN DEIA ZUK EREI

Alternatibak dituen herria, bizirik dagoen herria da. Horixe irudikatzen duen datoren 2015eko urriaren 24ean "Alternatiben Herria" ospatuko dugu Bilbon Euskal Herriko eskubide sozialen Kartak proposatuta eta Parisiko COP21n aurrean 10, 100, 1000 Alternatiben Herria antolatzen deia erantzunez. Aldarrikapen eta ospakizun eguna izango da, egunerokoan bizia ematen diguten hamaika proposamen handi eta txikien erakuslehoia.

Ekimen honen helburu nagusiak hauek dira:

- ★ Euskal Herriak, herri gisa alternatibak badituela zabaltzea eta beste eredu sozial hori zehazten hastea.
- ★ Euskal Herriko Mugimendu Sozialaren eta Sindikalaren kohesioan urratsak ematea.
- ★ Trantsizio sozial eta ekologikoa lortze bidean gizartearen aktibazio eta mobilizazio beharrean azpimarratzea eta horretarako gonbita egitea.
- ★ Alternatiben Herriaren ondoren alternatiba guzti hauek elkarlanean jarraitzea.

Gure bizitzak eta ama-lurra mehatxupean daude: desberdintasunen areagortzea, kapitalak arpiplatatuko aberastasun soziala, klima aldaketa; eskubide sozialen ahultzea, bazterketa sozialaren gorakada, naturabaliabideen xahutzea, zerbitzu publikoko pribatizatzeko irrika, orden patriarkalaren indartzea, gure

kabuz erabaki eta antolatzen ahalmen gabetzea, produkzioa eta kontsumo eredu jasanezina,... Eta honen aurrean soluzio faltsuak bakarrik eskaintzen dituzten kapitalismoak.

Baina dei hau egiten dugunok alternatibak ditugula eta jada martxan daudela erakutsi nahi dugu, sistema dela aldatu behar dena. Horregatik pertsonen beharrik erdian jartzen dituen eredu sozial berria aldarrikatzen dugu. Ongi bizitzeko, pertsonen zein herrien premiak asetzeko, gure buruak eta planeta zaintzeko, nagusi den sistema bera aldatzeko.

Alternatiben Herrian 6 ardatz egongo dira, 6 auzoetan banatuta. Ekonomia erdua; natura; bizitzaren iraunkortasuna; aniztasuna; ondare komuna eta demokrazia, burujabetza eta partehartzea. Ardatz hauetan dozenaka alternatiba ikusaraziko ditugu: ekonomia sozial, solidario eta eraldatzailea, elikadura burujabetza, ekonomia feminista, kontsumo arduratsua, prozesu partehartzaileak, aniztasunaren kudeaketa, ...

Agiri hau sinatzen dugunok Alternatiben Herrian parte hartzea eta dei hau zabaltzea gonbidatzen zaituztegu. Parada ederra daukagu bizirik gaudela adierazteko eta alternatibak ditugula erakusteko.



carta de los
derechos sociales **euskal herriko**
eskubide sozialen *Kartak*